


OINARRIZKO EKINTZAK

Hasteko produktua egin behar dugu. Gerriko poltsak egiteko, EKOMODO enpresarekin lan egingo dugu. Plastiko birziklatuak erabiltzen ditu oihalak egiteko, eta horrela gure josteko makinaren bidez oihalak moztea, elkartzea eta forma ematea lortuko dugu.


Beraiek egingo dizkigute telak gerriko poltsak egiteko eta guk erosi eta forma emango diegu. Gerriko poltsaren ekoizpen prozesua horrela izango da:



- Behin ekomodoko telak iristen direnean, enpresaren partaideak 3 sekzioetan banatuko dira.
- Pertsona batek (Katiak), moztu eta markatu egingo ditu gerriko poltsak.
- Beste bi pertsonak (Maialenek eta Iratik) josteko makinaren bidez, gerriko poltsak josiko dituzte.
- Azkeneko pertsonak (Aroak), hotz eta bero sistemak instalatuko ditu.
- Bukatzeko, taldeko batek packageak prestatuko ditu.
- Horretarako pentsatu dugu pertsona bat, josten asi behar dutenak baino lehenago sartu beharko zela lanera, horrela josten astean oihalak markatuta eta moztuta izango ditugu.

Hotz-sistamarako, gelezko poltsa berrerabilgarriak erabiliko ditugu. Gainera, poltsiko osoa aluminiozko PVCz forratuko dugu, hau, josteko makinarekin jarriko dugu gerriko poltsaren barnealdean, gelaren iraupena luzeagoa izateko. Produktu horiek Amazonen erosiko ditugu.

Bero-sistema, bateria portatil baten bidez osatuta egongo da, baina beste metodo batzuk ere pentsatu ditugu, etorkizunean, bateria % 100 birziklatua eta ez kutsatsatzailea izango du. Ekoizpen prozesu guztia ikusita, gutxi gorabehera unitate bat egiteko ordu bat eta 40 minutu iraungo ditugula kalkulatu dugu.



Paketeak guk egingo ditugu gure lokalean. Proiektu hau hasterakoan ez dugu diru asko izango beste enpresa batek gure paketeak egiteko, horregatik guk egingo ditugu. Goxokiak eta pegatinak jarriko ditugu pakete bakoitzean berezia izan dadin. Dena prestatzen dugunean, paketeak garraio-enpresetara eramango ditugu eta haiek gure produktua banatzeaz arduratuko dira; SEUR eta Correos izango dira garraio-enpresak. Ezagunagoak garenean, langileak kontratatuko ditugu guri laguntzeko, baina oraingoz, guk egingo ditugu ekintza guztiak.



Gure produktua saltzen hasteko, hainbat marketing kanpainak egingo ditugu, jendea gure produktuaz ohartzeko. Sare sozialak irekikoko ditugu, Instagram eta Tik Tok-en. Hau, ospe gehiago lortzeko da.

Gure bezeroek produktua erostean, online bidez etxera bidaliko diegu, hau, Correos, Seur... bidez iritsiko zaie berain etxeetara. Ondoren, aztertu egingo dute, ea zer iruditu zaien gure produktua, horrela jakingo dugu bere funtzioa ongi betetzen duen edo ez.




Beste aukera bat da, denda fisiokoetan erostea, baina honek desabantaila nagusi bat du; modu honetan ezingo dugu jakin nola tratatzen dituzten gure bezeroak eta zer iruditu zaien produktua, beraz dendan saltzen duten pertsonengan adi egon beharko dugu ea zerbait esaten dioten produktuari buruz.

Gure bezeroen egoera ahal den onena izateko, herriko

balorazio onenak dituzten dendetan jarriko ditugu.


Dendetako saltzaileak motibatzeke, hilean 50 unitate baino gehiago saltzen badituzte, hilabete horretako irabazien % 2 emango diegu.

Produktuak edozein arazo izanez gero, produktuaren aldaketa egiteko aukera izango dute. Gure enpresak urte bateko garantia eskaintzen du.



Gure produktua egiteko, kalkulatu dugu lehenengo hilabetean 100 unitate egitea, horrela ikusiko dugu ea nola dijoazten gure salmentak eta arrakasta izan dugun ala ez. Hortik abiatuta ikusiko dugu hurrengo hilabeteetan zenbat ekoitziko dugun.

Horretarako kalkulatu dugu gerriko poltsa bat egiteko denbora hau behar dugula; oihaletan diseinua markatzeko 3 bat minutu (diseinua ohialan markatzen) eta beste 7 minutu (mozten), horren





ondoren, josteko makina erabiltzen hasiko gara. Pieza guztiak biltzen eta josten, ordu bat tardatuko dugu. Produktuari sistema jartzen 20 minutu gutxi gorabehera tardatuko ditugu. Amaitzeko, paketeak egiten 10 minutu. Beraz guztira ordu bat eta berrogei minutu igaroko ditugu gure produktua PANZITATXILAK egiten.

Bukatzeko, PANZITATXILAX produktua stockean izango dugu, hau da, lehenengo ekoizpeneko 100 unitate biltegian gordeko ditugu saltzeko prest. Lehenengo produkzio honetako 40 unitate salmenta-kanal fisikoetan, 40 unitate online bidez eta gainerako 20 unitateak stockean gordeko dira etorkizuneko eskaeraren bat izanez gero. Stock honi esker, bezeroek eskaera egin bezain laster produktuaren entrega azkarra bermatuko da, eta ekoizpen berriaren planifikazioa errazagoa izango da.



BIBLIOGRAFIA : Pertsonak ateratzen diren lekuan, canvako la-rekin argazkiak sortu ditugu. Hau da, aplikazio horretan eskatu diogu "HAZME UNA FOTO DE UNA CHICA MORENA CON UNA REGLA HACIENDO MEDIDADAS DE UNA TELA Y ALREDEDOR MAKINAS DE COSER" "HAZME UNA FOTO DONDE UNA CHICA FAMOSA HACIENDO UN VIDEO CON UN MOVIL HACIENDO UNA PUBLICACION A UNA RIÑONERA NEGRA" "hazme una foto donde hay varias personas viendo una riñonera negra en una tienda. Pero que esten mirando atraves de una venta y en la tienda dentro pero que no este puesta ni nada de eso " "hazme una foto donde hay varias personas viendo una riñonera negra en una tienda. Pero que esten mirando atraves de una venta y en la tienda dentro pero que no este puesta nin ada de eso y que esten valorando el produkto atraves de una pantalla de estrellas"